01 03
OTAZA

Otaza Foronda udalerri zaharreko herri entitate txiki bat izan zen eta 1974. urtean Vitoria-Gasteizekin batu egin zen.

“Forondakoa” deituriko aireportua eraiki zenean, ikusi zen ezin zela jarraitu, pistaren hegoaldeko burua gertuegi zegoelako (250 m) eta hura guztiz suntsitzea erabaki zen, aire nabigaziorako oso arriskutsua zelako.

Hori dela eta, oraindik 1968. urteko ortoargazkian bere eraikinak ikus ditzakegu, baina 2015ekoan, berriz, laborantzak besterik ez dira atzematen. Suntsitutako eraikinen artean eliza aurkitzen zen.

Bitxikeri moduan, nabarmendu behar da aireportua eraikitzeko egindako indusketan Erdi Aroko txanpon multzo bat aurkitu zela (Otazako altxor gisa ezagututa), Gaztelako Alfontso VIII.aren erresumako 5000 kobrezko txanponek osatuta (XIII. mendea).



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. Ikus daiteke herria Forondako aireportuaren hegoaldeko burutik gertu zegoela.



Ortoargazkia 1983. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi; Arabako Foru Aldundia. UTM 30N ETRS89 // X: 521407.0775 // Y: 4745949.0875 // Z: 504 m. Gorriz Otazako eraikinak adierazi dira.



Ortoargazkia 2015.
Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Ikus daiteke herria ez dela existitzen. Gorriz adierazi da desagertutako eraikinen kokapena.